

AMA EUSKARARI.*



«Euskara ill ezkeru,
Ez degu nai bizi.»
Arrese.

¡Marruaz austen zeran itsaso neurrigabea!
 ¡Mendi yetatiktik amiltzen zeran ur-koajea!¹
 ¡Saroi tartean zabiltzan chori kantatzallea,
 Zure kantuz lilluraturik giza-jendea!
 Emadazute: batek, itzera dunbosgillea,
 Besteak, mur-mur biyotz eriyen sendatzallea,
 Besteak, izkuntz eztijariyo choratzallea,
 Dirudiyena goyaingeruen batots² emea³;
 Kanta dezadan zér dan Euskara maite-maitea,
 Kanta dezadan, bere kondaira paregabea;
 Kanta dezadan, dala munduan obe-gabea,
 Dala lore bat, chit urrintsua,⁴ chit bitorea,
 Dala kucha bat, oitura onen gordetzallea,
 Dala joya bat, apaintasunez bete betea,
 Gure lurreko mendi-tartean garbi gordea,
 Zikintasunen izpirik, ere, sentigabea.

¡Gau illunean dizdiz egiten dezun izarra,
 Pozturik ontzi erbalan⁵ doan ugarotarrat⁶
 Ukitu zazu nere kopeta gaišo lurtarra,
 Sartu zadazu gogargiyaren⁷ Zeruko garra,
 Ezagutu ta goitu dezadan Euskara zarra,
 Goitu dezadan bere edertasun mirakindarra.⁸

(*) Composicion premiada con Un *makilla con incrustaciones de oro y plata* en el certamen verificado en Pamplona en 1884. (V. pág. 357).

(1) Corriente de agua.—(2) Concierto.—(3) Suave.—(4) Fragante.—(5) Frágil.
 —(6) Navegante.—(7) Inspiracion.—(8) Mágico.

¡Nork leukakean itsasoaren boz indartsua,
 Nork leukakean turmoiyaren ots orroetsua!
 Kantatutzeko, mugidaturik arkatiz-errua,
 Mugidaturik, ikaturik mendi goitsua,
 Zér dan Aitorren izkunde guziz antziñakua,
 Kaukasopetik Aitalenenak¹ ekartakua;
 Zér dan ¡bai! zér dan Larramendi-ren mintzo gozua,
 Dirudiyena Zeru-goyetan sortutakua....

Astarloa-ren izketa zér dan kantatutzeko,
 Dituen doai konteziñalak azaldutzeko;
 Humboldt aundiya mintzatu zana doanditzeko;²
 Mendiburu-ren izkuntz eztiya goititutzeko;
 Mogel-arraza bikaiñarena ospatutzeko,
 Axularrena mundurik-mundu zabaldutzeko.

¡Euskal-izkuntza goitu dezuten gizon aundiya,
 Gaur zaudetenak ezillgarriyen gora jaikiya!
 Nigan atozte, sartzera neri zuen argiyan,
 Zuen alainzo³ goitandiyaren⁴ su-gar biziyan,
 Su-gar oyekin alairik nere almen guztiyan,
 Kanta ditzadan, argiro, gauza miresgarriyan.

¡Nork lezakean, ibar negardun au lagarikan,
 Arrano baten eran, ausartaz⁵ egaaturikan,
 Aunditasunez laño guztiyan igarorikan,
 Izar sutsúen ekotegira⁶ goraturikan,
 Eguzkiyaren argitasunaz jabeturikan,
 Beragaz odei trinko-taldeak urraturikan,
 Utzi sugoiyan,⁷ aingeru-lumaz ezarririkan:
 «Ez dala Euskara beziñ izkuntza jakintsurikan,
 Ez dala gure biyotzentzako añ maiterikan,
 Añ aberatsik, añ otsetirik, añ ederrikan.»

¡Nork lezakean azaldu zure kondair' argiya,
 Berdingabeko Euskal-izkuntza maitagarriya!
 ¡Nork lezakean agertu zure bizi garbiya,
 Zeruan dauden izarrak beziñ dizdizariya!

(1) Patriarca.—(2) Alabar.—(3) Talento.—(4) Sublime.—(5) Audaz.—(6) Region.—(7) Eter.

Alperrik, iñoiz zaizkitzu jarri kontra lañuak,
 Illundu nairik zure edertasun zirargitsuak;¹
 Guzti-guztiyak izan dirade menderatuak,
 Guztiyak geldi dira jazarran purrakatuak,
 Nola diraden, eguzkiyagaz, odei pisuak,
 Gelditzen beti, naiz gogor egin, banakatuak.

Guztiyak utzi zaituzte mancha gabetanikan,
 Guzti-guztiyak, lén ziñan beziñ goitandirikan;
 Guztiyak, ariñ, iges joan dira, lotsaturikan,
 Beren igesak zure garaitza pregoiturikan;
 Ala gau itzal beltzak dijoaz, izuturikan
 Egun-sentiya nola datorren ikusirikan,
 Kopet churiya larros-ederrez apaindurikan,
 Agertutzean, lurrean poza zabaldurikan.

¡Ez, bada, negar egin, gaur, Ama biyotzekua!
 Begiratzean seme gaizto bat, zugaz aztua!..
 ¡Begira! nola zugan daukagun gure gogua,
 Nola zugatik piztutzen zaigun indar sutsua!

¡Begira! nola zuri begira gauden guztiyak,
 ¡Begira! nola gorde nairikan zure doaiyak,
 ¡Begira! nola kantatu nairik zure gloriyak,
 Zure kondairan dauden artiste² miragarriyak.

¡Begira! nola danok diogun: «Ama maitea,
 Zu zera gure biyotz illunen argitzallea,
 Zu zaude gure barru-barruan ongi gordea;
 Zu gabe, dana ¡dana! topatzen degu tristea;
 Zurekin dana dago guretzat pozez betea;
 Zu gabe, datoz, guban antsiya eta nekea;
 Zu ill ezkerro, mingarriya da bizitutzea.»

¡Bizi zaitea! nola diyoten tontor goiyetan,
 ¡Bizi zaitea! nola deitzen duten landetan,
 ¡Bizi zaitea! baso-tarteko baserriyetan,
 ¡Bizi zaitea! mendi gañeko chabolchoetan,
 ¡Bizi zaitea! zure semeak alde danetan,
 Naiz alorrean; naiz itsasoan, naiz uriyetan.

(1) Radiante.—(2) Perla.

¡Bizi zaitela! digo, marruaz, itsas-arroak,
 ¡Bizi zaitela! pill pill egiñaz, iturrichoak,
 ¡Bizi zaitela! dute kantatzen, egaztichoak,
 ¡Bizi zaitela! lore-tartean sartaizechoak,
 ¡Bizi zaitela! beeka, larrean, arkumechoak,
 ¡Bizi zaitela! bere jotera, ¹ ezkillachoak,
 ¡Bizi zaitela! zelai galaiyak eta basoak.

Zu gabe, ¿nola bizi gintezke?... Chori chikiya,
 Nekez utzirik, lumatutzean, bere kabiya,
 ¿Norá joango, da norá joango da penagarriya,
 Baldin ill hada beraren ama maitagarriya?...
 ¿Nola zutikan egon liteke lore galaiya,
 Baldin igarrik arkitzen hada bere sustraiya?...
 ¿Nola, pizkorrik, zelai-tartean, ibai garbiya,
 Legor badago, ur-tanto gabe, bere goaiya?...²

Bañan ¡ez bildur! ¡ez bildur izan, Ama maitea,
 Naiz zure kontra sumindurikan³ jarri jendea!
 Sortuagatik urakan aldun ondatzallea,
 Sortuagatik ujolde bizi galmentzallea,
 Pasako dira, bukako dira bat-ta bestea,
 Zeru zabala ikusiko da odei gabea,
 Bertan azaltzen dala nagusi pake donea.

Ez du lañoak isurtzen beti gugan euriya,
 Ez itsasoak beti irauten du bildurgarriya;
 Ez dago lurra izotz gogorrez beti estaliya,
 Ez ekaitzakin beti, galdua, negargarriya;
 Ez dabilkigu beti gañean chimist sutiya,
 Dakarrelarik ondoren turmoi dardargarriya.
 ¡Ez! Gabak dakar, jarraian, eder egun-sentiya,
 Negu tristeak lorez jantzirik, udaberriya,
 Gerra gogorrak, ondoren pake jaungoikotiya,
 Laño pisuak, aldentutzean, Zeru garbiya,
 Lurra piztutzen duen eguzki garallariya,
 Zelaiya dizdiz ipintzen duen intz zerukoia.

¡Ama! Zuk dezun naigabea-re bukatuko da,
 Doatsuera, bere segiyen, etrorriko da,

(1) Tañido.—(2) Madre de rio.— (3) Enfurecido.

Zu, bakar, utzi zaituen ura, damutuko da;
Zure doaiyak ospatutzean, gozatuko da.

¡Zér poz, orduan, izango diran zure semeak,
Begiratzean zure koroiyak, zure loreak!
¡Nola zurtuko diran Euskaldun garaitzalleak!
¡Nola geldiko diran otsare dontsuz beteak!

¡Egun ederra! Poztuko dira mendi goitziak,
Atsegindurik, loretsutuko dira zelaiak;
Poztuko dira, zugaztiyetan dauden choriyak,
Poztuko dira, lurpean bizi diran piztiyak;
Ostoz jantziko dira, pozturik, aritz tantaiyak,
Sendo ta gogor itsatsirikan beren sustraiyak;
Poztuko dira geldi doazen ibai aundiak,
Poztuko dira, pizkor dabiltzan itur chikiyak.

Entzungo dira zantzo ta irrintz pozgarritsuak;
Entzungo dira kanta gozodun alositzuak;¹
Entzungo dira, jendadiyetan, Euskal-chistuak;
Entzungo dira biyotza pozten duten soñuak.

Ikusiko da, mendi-gañetan, urrez jantziya,
Zeruetatik etorritako laño churiya;
Ikusiko da gau ederrean izar argiya,
Zillarrezturik bere errañuaz mundu guztiya:
Ikusiko da, galaiturikan, Euskal-Erriya,
Jantzirikan, len zuen urrezko mantu gorriya,
Gora jasorik bere kopeta dizdizariya,
Bere burúan duela koroí arturgikiya.²

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.



(1) Armonioso.— (2) Diamantino.